

Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren kalitatea hobetzeko Hitzarmenak, 2018ko abuztuan sinatua, hainbat neurri jasotzen ditu Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuan lan egiten duten unibertsitateaz kanpoko irakasleei dagokienez. Neurri horietako bat da ikasturte bakoitzeko irakasle gisa gutxienez bost hilabete eta erdi kontratatuta egon diren bitarteko irakasleei udako hilabeteak ordaintzea. Neurri hori gauzatzeko, beharrezkoa da irizpide edo jarraibide batzuk ezartzea, onuradun diren langileen kasuistika desberdinei erantzuteko.

Garrantzitsua da adieraztea neurri hori 2018-2019 ikasturtean aplikatzeko modua behin-behinekoa dela, batez ere bi arrazoiengatik. Lehenengoa, Hezkuntza Departamentuak asmoa duela irakasleen kontratuak abuztuaren 31n automatikoki ez amaitzea. Neurri hori urte hasieran iragarri zen, eta beharrezkoa da foru dekretu bat izapidetu, negoziatu eta onartzea. Prozedura hori hurrengo 2019-2020 ikasturtean gauzatuko da eta, indarrean dagoenean, eragin argia eta positiboa izango du udako aitortzenari dagokionez.

Halaber, adierazi behar da, 2019-2020 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza Departamentuaren asmoa dela irakasleen kontratu guztiak irizpide berberekin egitea, nahiz eta urriaren 1a baino lehen edo ondoren sinatu. Horretarako, kontratuen iraupena arautzen duen Foru Dekretua indargabetu behar da.

Nolanahi ere, eta 2018-2019 ikasturte honetatik aurrera neurri hori bete behar denez, jakinarazten dizuegu udako hilabeteen aitortzena hurrengo jarraibideen arabera egingo dela:

## **JARRAIBIDEAK**

1. Udako hilabeteen zati proportzionala jasotzeko eskubidea izanen dute Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ikasturte bakoitzean gutxienez bost hilabete eta erdi, eta ekainaren 30a arte, iraun duen kontratua izan duten unibertsitatez kanpoko irakasleek. Ikasturte gisa ulertzen da irailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era bitarteko aldia.

a) Administrazio-kontratudun gisa ikasturte bakoitzean gutxienez bost hilabete eta erdi (165 egun natural) lan egin duten unibertsitatez kanpoko irakasleek automatikoki sortuko dute uztaileko eta abuztuko dagokien zatia, ikasturte horretan eta egindako lanaldian lan egin duten denbora kontuan hartuta, ikasturte horretan zehar kontratu bat ala hainbat kontratu izan dituen kontuan hartu gabe.

Horretarako, ikasturtean gutxienez 165 egun natural lan egin duenak sortuko du eskubidea.

Aitorpena ofizioz egingen du Hezkuntza Departamentuak, eta interesdunek ez dute inolako tramiterik egin beharko.

Era berean, aurrekoaren ondorioz, nominan erregularizazioa egin behar bada, ofizioz ere egingo da.

Ekainaren 30ean, eskubidea aitortuko zaion irakasleak izangaien aldi baterako kontratazio-zerrendan egon beharko du; alegia, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko irakasle lanpostuak aldi baterako kontratazio bidez betetzeko luzatzea dagokion zerrendan.

b) Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, irizpide hauek aplikatuko dira, kontratuen amaiera-dataren arabera:

- Pertsona interesdunak 165 egun natural baino gehiagoko kontratua badu ekainaren 30ean, kontratu horren iraupena luzatuko da udako hilabetei dagozkien egunetan.

- Pertsona interesatua 165 egun naturaletik beherako kontratu batekin iristen bada ekainaren 30era, eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuarekin ikasturte horretan gutxienez 165 egun naturaleko kontratua badu, kontratu berri bat egingo da uztailaren 1etik aurrera, udako hilabetei dagozkien egunengatik eta iraupen handieneko kontratuaren ezaugarri berekin. Ezaugarri horiek ikastetxeari, kidegoari, espezialitateari, profilari, hizkuntzari eta lanaldiari buruzkoak dira.

- Interesdunak azken kontratua ekainaren 30a baino lehen amaitu badu, egutegiko 165 egun baino gehiago lanean ari dela, kontratu berri bat egingo da uztailaren 1etik aurrera eta iraupen handieneko kontratuaren ezaugarri berekin. Ezaugarri horiek ikastetxeari, kidegoari, espezialitateari, profilari, hizkuntzari eta lanaldiari buruzkoak dira.

c) Aitortutako aldi horretan, ikastaroko kontratu guztiek sortutako oporrak hartuko dira.

Kontratua amaitzen den bakoitzean oporrak ordaindu badira, oporren erregularizazioa egingo da dagozkien udako hilabeteen aitortpenarekin.

d) Hezkuntza Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzuak, Giza Baliabideen Zerbitzuak eta Baliabide Ekonomikoen Zerbitzuak batera tramitatuko dute udako hilabeteen aitortza. Lehenengoari dagokio aitortpena

egiteko beharrezkoak diren datuak ateratzea; bigarrenari, dagozkion kontratuak egitea; eta, azkenik, hirugarren zerbitzuari dagokio, nomina eta kontratu horietatik eratorritako kotizazioak kudeatzea.

e) 2019/2020 ikasturtean eta hurrengoetan, antolakuntza-arrazoiengatik, ikasturte bakoitzeko ekainaren 30etik aurrera ordainduko dira kontratu bakoitza amaitzeari dagozkion oporrak. Une horretan ikasturtean zehar lan egindako denbora egiaztatuko da. 165 egun natural baino gehiago baditu, Hezkuntza Departamentuak ofizioz egingen du aitortpena eta ordainketa, lan egindako denboraren eta egindako lanaldiaren arabera, jarraibide hauetan ezarritakoari jarraikiz. Txikiagoa bada, 27 eguneko oporrak ordainduko dira lan egindako denboraren proportzioan.

*Iruñean, 2019ko uztailaren 24an*